

Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia (EBPN)

ELGOIBAR

Plan estrategikoa: 2007-2010

Data: 2009-01-26

Helburu nagusia **Euskara Biziberritzeko Plan Nagusiaren helburu nagusia da euskaraz bizi nahi duten herritarrei horretarako aukerak bermatzeko behar diren hizkuntza-politikako neurriak erabakitzea eta bultzatzea. Euskal Herrian, maila pertsonalean, sozialean eta ofizialean, euskararen berreskurapen osoa lortzeko euskararen aldeko urratsak areagotzea.**

Helburu estrategikoa 1 - Euskara ondorengoetaratzea**Esparrua 1. a - Irakaskuntza**

Neurria 1. a. 001 - Ikastaro bereziak euskaraz egitera bultzatzeko dirulaguntzak ematea.

Ekintza
1. a. 001/001 - UEUra euskarazko ikastaroak egitera joateko dirulaguntzak ematea.

Neurria 1. a. 01 - Hizkuntza-politikaren arloan garatutako ekimenen eraginik aldekoena hezkuntza-arloan antzeman da, hain zuzen ere, EAeko eta Nafarroako Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan. EAEn, irakaskuntza-sistemako B ereduaren eta bereziki D ereduaren onarpenari esker gertatu da euskararen areagotzea gazteen artean. Beste aldean, berriz, Iparraldea dago; lurralde horretan euskararen jarraipena belaunaldi gazteen artean atzeraka doa: euskarazko hezkuntza-sistema ezarri ez izanaren eragin zuzena. Iparraldean 1991n eta 1996an egindako inkesten emaitzek argi asko frogatzen dute esaldi honek dioena: Une langue qu'on n'enseigne pas est une langue qu'on tue. Lurralde horretan gero eta guraso euskaldun gutxiago dago euskara familian bertan gerora dezakeena. Hori horrela, gurasoek finantzaturako euskal eskolak ez dira aski eskolumeen masa kritiko bati euskararen jarraipena ziurtatzeko. Diruz lagundutako euskarazko eskolarik gabe, belaunaldi batetik bestera euskaldunen kopuruaren beherakada esponenziala besterik ez du ekarriko etorkizunak. Iparraldea itzulerarik gabeko egoerara doa horrela: ez da bermatuko ezta euskararen biziraupena ere. Diru publikoz finantzaturako euskarazko irakaskuntza ezinbesteko da euskararen jarraipenerako Iparraldean.

Ekintza
1. a. 01/3 - Lanbide Hezkuntzako eta unibertsitate zentroetan euskara sustatzeko laguntza ematea

Neurria 1. a. 03 - Egitarau zehatzak eratu eskolaz eskola, irakaskuntzarako ez ezik eskolako ekintza guztietako harreman-hizkuntza ere izateko, bai eta euskararekiko atxikimendua eta euskaraz bizitzen lagunduko duten ohiturak bultzatzeko ere.

Ekintza
1. a. 03/001 - Haur eta gaztetxo etorkinentzat euskara-errefortzu saioak.
1. a. 03/002 - Eskolaz kanpo euskararen erabilera bultzatzeko, ingurugiro barnetegietan egonaldiak egiteko dirulaguntzak ematea.
1. a. 03/2 - Ikastetxeetan euskararen normalkuntza planak martxan jartzeko eta daudenetan garatzeko laguntzak eskaintzea.
1. a. 03/5 - Ahozko adierazmena indartzeko ekintzak (Ikastetxeetako Bertsogintza egitasmoa) burutzeko laguntza ematea
1. a. 03/8 - Irakurzaletasuna bultzatzeko ekimenak antolatzea eta horien berri ematea.
1. a. 03/9 - `Euskara Zine Aretoetara? programan parte hartzera animatu eta hori gauzatzeko beharrezkoak diren baliabideak eskaini (zine aretoa, sarrerak merkeagotzeko dirulaguntzak, esku-orriak prestatzea...)

Esparrua**1. b - Euskalduntze-alfabetatzea**

Neurria

1. b. 01 - Euskalduntze-alfabetatzeko ekintzabideak erabileraren ingurukoekin uztartu, eta arreta berezia jarri euskararen bizitasun etnolinguistikoa indartzeko ezinbestekoak diren gune geografikoetan, giza taldeetan eta gizarte-eremuetan, horiei lehentasun osoa eskainiz, ahalik eta eperik laburrenean, hizketarako gai diren euskaldunak lortzeko. Horretara heltzeko, efektu biderkatzailea izan dezaketen giza taldeak identifikatu behar dira, helburu zehatzei erantzuteko ikastaroak antolatu eta hasierako mailatik bukaerarainoko ikasketa-prozesu osoa hitzartu gizarteko hainbat eragile eta talderekin.

Ekintza
1. b. 01/002 - Euskaltegien ohiko jarduna bermatzea.
1. b. 01/1 - Kasuan kasuko eragile eta taldeak identifikatzea jarduera esparruka eta horren arabera ikastaroen eskaintza bideratzea.
1. b. 01/001 - Barnetegietan, euskara ikasteko dirulaguntzak ematea.
1. b. 01/2 - Euskaltegiekin batera ekintzak jarri abian, ikasleen euskara erabilera sendotzeko.
1. b. 01/3 - Euskara ikasteko bekak eskaintzea.
1. b. 01/4 - Herritarren artean euskara ikastearen garrantziaz sentsibilizatzeko eta herrian euskara ikasteko dauden aukeren berri ematea
1. b. 01/7 - Euskara ikasten ari direnak euskara erabiltzeko motibatzea
1. b. 01/6 - Alfabetatze ikastaroak indartzea eta jarduera esparruka identifikatutako taldeei eskaintzea.

Esparrua**1. c - Familia**

Neurria

1. c. 01 - Euskararen familia bidezko jarraipenari ekiteko, bi gune nagusitan egin behar da indar: gazteengan, bikote-hizkuntza finkatzeari begira, eta familia osatu berriengan, haurren lehen hizkuntza ziurtatzeari begira. Horretarako, jarraipenean zuzeneko eragina (gurasoak, gurasogaiak, haurrak) nahiz zeharkakoa (haurtzaindegiak, zaindariak,...) dutenak sentiberatzeko eta eskolaratzeko ekintzak behar dira; halaber, euskaraz egiteko zerbitzuak, guneak eta aukerak eskaini behar zaizkie, xede-talde bakoitzari mezu eta ekintza zehatzak proposatuz.

Ekintza
1. c. 01/002 - Euskarazko produktuen katalogoa argitaratzea eta banatzea.
1. c. 01/003 - Guraso etorkinei zuzendutako sentsibilizazio jarduerak.
1. c. 01/4 - Derrigorrezko ez den ikastaldian (0-3 urte) euskarazko haurtzaindegiak edo haur-eskolak eskaintzea.
1. c. 01/6 - Familia osatu berria duten bikote erdi-euskaldunak euskalduntzeko ikastaroak eta erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/7 - Familia osatu berria duten bikote euskaldunetan bai haurrekin eta bai elkarren artean ere erabilera sustatzeari begirako jarduerak
1. c. 01/8 - Familia osatu berria duten bikote erdaldunak euskalduntzeko eta sentsibilizatzeko jarduerak
1. c. 01/10 - Haurrentzako zerbitzuak kudeatzen dituztenekin hitzarmenak sinatu euskararen erabilera egokia bermatzeko
1. c. 01/12 - Haurrentzat, gurasoentzat eta zaintzaileentzat euskararekiko sentiberatzeko egitasmoak (bildumak: ipuinak , kantuak,...)

Helburu estrategikoa **2 - Euskararen erabilera: euskararen aldeko auzogintza eta zerbitzugintza**

Esparrua **2.0a - Planifikazioa eta ebaluazioa**

Neurria 2.0a. 001 - Udalaren hizkuntza politika planifikatzeko azterketa soziolinguistikoak egitea

Ekintza
2.0a. 001/001 - Euskararen kale erabilerari buruzko informazioa izateko neurketak egitea.

Esparrua **2.0b - Osasun arloa**

Neurria 2.0b. 001 - Osasun arloan euskararen erabilera areagotzeko planen jarraipena egitea.

Ekintza
2.0b. 001/001 - Osasun etxean abian dagoen euskara planaren jarraipena egitea

Esparrua **2. a - Administrazioa**

Neurria 2. a. 01 - Euskara administrazioaren zerbitzu-hizkuntza izango dela bermatu, batik bat osasun-zerbitzuetan, herrizaingo-zerbitzuetan eta justizia-administrazioan. Era berean, lan-hizkuntza ere izan dadin egitasmoak abian jarri. Estatuko administrazioako erakundeetan eta, bereziki, Justiziakoetan ere euskararen erabilera sustatzeko plangintza zehatzak martxan jarri.

Ekintza
2. a. 01/002 - Udal administrazioako langileei euskaraz lan egitean sortzen zaizkien zalantzak argitzeko laguntza eskaintzea.
2. a. 01/001 - Udalak kontratatzen dituen langileen euskara maila ziurtatzeko ezarritako hizkuntza irizpideen betetze maila aztertzea.
2. a. 01/1 - Agintariak ere programa hauetan inplikatzeko.
2. a. 01/2 - Dirulaguntzak banatzeko deialdietan hizkuntza-irizpideak ezartzea.
2. a. 01/3 - Euskaraz lan egiteko langileak behar dituen baliabideak eskaintzea (hiztegi berezituak, idatzirik ohikoenen ereduak, teknologia berriek eskaintzen dituzten baliabideak...)
2. a. 01/5 - Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko plana garatzea
2. a. 01/9 - Udalak egiten dituen langileen kontratazio berrietan hizkuntza-irizpideak ezartzea.
2. a. 01/10 - Udalak egiten dituen zerbitzu publikoen kudeaketarako kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea, eta horien jarraipena egitea.
2. a. 01/6 - Euskararen erabilera arautzen duen Udal Ordenantza berriz aztertzea, eta jarraipenerako sistema bat antolatzea.

Ekintza
2. a. 01/11 - Udalak egiten dituen hornikuntza kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea.
2. a. 01/13 - Udalak egiten dituen obra kontratuetan hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Neurria 2. a. 04 - Herri-administrazioetan (bereziki udal eta eskualdeetan) euskararen erabilera normalizatzeko plangintzak gauzatu. Horretarako, euskara-zerbitzuak sendotu edo eratu eta hizkuntza-normalizatzailen prestakuntzaz arduratu.

Ekintza
2. a. 04/4 - Euskararen Aholku Batzordea osatzea, herriko ikastetxe, euskaltegi, eta elkarteekin batera.
2. a. 04/5 - Euskara Zerbitzua sendotzea, Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzarekin batera.
2. a. 04/001 - Debarroko udalekin batera egitasmo bereziak antolatzea.

Esparrua 2. c - Informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak

Neurria 2. c. 06 - Informazio-kanpainak antolatu eta sentiberatze-lana egin informazio-produktuen eskaria gero eta handiagoa izan dadin herritarren (jolas eta informaziorako), enpresen (informazio, interpretazio eta itzulpenarako) eta sektore publikoaren aldetik (informazio, itzulpen, interpretazio eta dokumentaziorako).

Ekintza
2. c. 06/2 - Udal zentroetan teknologia berrietan oinarritutako euskarazko produktu eta zerbitzuak eskaintzea.
2. c. 06/3 - Euskara lantzeko tresnen zabalkundea egitea herritarren artean.

Neurria 2. c. 07 - Euskal kulturaren ondareari buruzko informazioa digitalizatu eta hedatu.

Ekintza
2. c. 07/1 - Ondare kulturala biltzea, ahal den neurrian digitalizatzea eta zabaltzea: toponimia, kondaira, gertaerak (www.elgoibar.org)
2. c. 07/001 - Elgoibarko Udalaren webgunean euskararen erabilera zuzena ziurtatzea.
2. c. 07/002 - Elgoibarko informazioa emateaz gain, herritarrek euren iritzia emateko aukera eskaintzen duen web gunea
2. c. 07/003 - Elgoibarko ahozko ondarea digitalizatzea

Esparrua **2. d - Enpresa-mundua**

Neurria 2. d. 001 - Zerbitzuak eskaintzen dituzten herriko enpresetan euskararen erabilera areagotzea.

Ekintza
2. d. 001/001 - Gurean Bai Merkataritza eta Ostalaritza egitasmoari jarraipena ematea
2. d. 001/002 - Merkataritza eta ostalaritza establezimenduetako gestioa euskalduntzeko (softwarea erosteko) diru-laguntza ematea.
2. d. 001/005 - Merkataritza eta ostalaritza sektorea euskalduntzeko ikastaroak abian jartzea

Neurria 2. d. 01 - Enpresetan euskararen erabilera areagotzeari begira, hizkuntza-politika antolatu helburu horiek kontuan: merkataritza-ganbarak, enpresariak eta enpresari-elkarteak, elkargoak, sindikatuak, eta abar, hizkuntza-politika horretako partaide bihurtzea; lantokietan euskararen aldeko proiektuak ezartzeko markoa definitzea eta giza baliabideak nahiz ekonomikoak bideratzea; lantokien tipologiaren araberako proiektuak diseinatzea eta gauzatzea.

Ekintza
2. d. 01/1 - Lan munduan euskararen sentsibilizazio kanpainari jarraipena ematea
2. d. 01/002 - Industria sektorean, euskararen erabilera areagotzeko planak inplementatzen dituztenei diru-laguntzak ematea.

Esparrua **2. e - Aisia**

Neurria 2. e. 001 - Haur eta gaztetxoan aisialdirako ekipamenduak eta jarduerak

Ekintza
2. e. 001/001 - Haur eta gaztetxoan aisialdirako ekipamenduak abian jarri eta mantentzea.

Neurria 2. e. 01 - Aisialdian lanean diharduten talde indartsuekin (parrokiak, eskautak eta abar) zein aisialdirako begirale eta zuzendarien prestakuntzan ari diren eskolekin (Hezibide, Edex,...) plangintza zehatza egin, begiraleen hizkuntza-trebakuntza antolatzeko eta aisialdiko ekintzetan euskararen erabilera areagotzeko neurri zehatzak eta egokiak har ditzaten uneoro

Ekintza
2. e. 01/001 - Asialdian euskararen erabilera bultzatzeko dirulaguntzak ematea.
2. e. 01/1 - Udaleko aisialdi-ekintzak modu koordinatuan garatzea.
2. e. 01/4 - Euskaraz dakiten aisialdirako begiraleen lan poltsa osatzea.

Neurria 2. e. 02 - Begiraleen eskoletan euskarazko adarra bermatu.

Ekintza
2. e. 02/001 - Begirale ikastaroa euskaraz antolatzea.

Neurria 2. e. 03 - Euskararen aldeko ekintza soilen ordeztu, inguru hezitzailean eskaini aisialdi-zerbitzuak: herria, nortasuna, herri-kidetasuna, kondaira eta hizkuntza elkartuz, alegia.

Ekintza
2. e. 03/1 - Jolasaren ildoko ekintzak euskaraz antolatzea.
2. e. 03/003 - Asialdiko eskaintzetan hizkuntza irizpideak ezartzea.
2. e. 03/4 - Irteerak euskaraz antolatzea.
2. e. 03/5 - Euskal kultura eta tradizioari lotutako ekintzak bultzatzeko Mintza Jolas proiektua
2. e. 03/6 - Opor sasoian euskaraz antolatzen diren ekintzak sustatzea.
2. e. 03/7 - Udalaren menpeko aisialdi eta kultur guneetan (ludotekak, kultur etxeak...) antolatzen diren ekintzetan euskarazko saioak bermatzea.
2. e. 03/8 - Lagunartean euskararen erabilera bultzatzeko egitasmoa garatzea: Kuadrillategi

Esparrua 2. f - Kirola

Neurria 2. f. 01 - Hiruzpalau urteko plan estrategiko batean kirol-arloa euskalduntzeko hiru lan-esparru nagusi taxutu: materialaren sorkuntza eta hedapena; entrenatzaileentzako titulu ofizial eta ez ofizialak lortzeko ikastaroak; sentsibilizazio eta zabalkunde orokorra zein herri-mailakoa.

Ekintza
2. f. 01/001 - Euskara hutsezko harremanak Udal Kirol Patronatuan.
2. f. 01/3 - Kirol taldeek erabiltzen duten materiala euskaraz izateko laguntzak bideratzea, eta material horiek kirol-klub eta elkarteetara helaraztea.
2. f. 01/4 - Kirolean ere euskararen erabilera areagotzeko sentsibilizazio ekintza zehatzak burutzea.

Neurria 2. f. 02 - Udal-kiroldegietako langileak edo enpresa-zerbitzuak kontratatzerakoan hizkuntza-irizpideak ezarri. Udalen eta ekimen pribatuaren esku dagoen `Denontzako Kirola? programan euskarazko eskaintza bermatu. Federazioen laguntzaz euskararen erabilera areagotu jendaurreko kirol-agerpenetan: iragarki, megafonia, errotulazio eta argitalpenetan.

Ekintza
2. f. 02/1 - Kirol taldeei zuzendutako dirulaguntzetarako deialdietan hizkuntza-irizpideak ezartzea.
2. f. 02/3 - Jendaurreko kirol-jardueretan euskararen presentzia bermatzeko hizkuntza-irizpideak ezartzea.

Esparrua **2. g - Erlijioa**

Neurria 2. g. 03 - Euskarari buruzkoetan, ahalik eta bateratsuen jokatzea eskatu elizbarrutiei.

Ekintza
2. g. 03/1 - Katekesia euskara hutsean eskaintzea
2. g. 03/3 - Laguntza eskaini euskarazko ekintzak aurrera eramateko

Helburu estrategikoa 3 - Euskararen elikadura**Esparrua 3. a - Corpus-plangintza eta euskararen kalitatea**

Neurria 3. a. 03 - Hizkuntza-paisaia ugaldtu eta txukundu eta berbazko euskal kultur produkzioak ere landu.

Ekintza
3. a. 03/1 - Toponimoak eta herriko ageriko hizkuntza-paisaia normalizatzea, Euskaltzaindiarekin bat etorritz.
3. a. 03/3 - Kasuan kasuko euskalkiaren azterketa linguistikoa gizarteratzea.
3. a. 03/4 - Merkatal guneetako hizkuntza-paisaian (denda, taberna, akademiak eta abarrekoetakoan) euskararen presentzia txukuntzea eta areagotzea.
3. a. 03/001 - Elgoibarko toki izenen azterketa toponimikoa.
3. a. 03/002 - Euskal izen-abizenak euskal grafiaz jartzeko ekimena.

Esparrua 3. c - Liburugintza

Neurria 3. c. 01 - Datozen urteotan orain arte baino arreta handiagoa jarri erosle eta irakurleengan, irakurzaletasuna bultzatuz, marketina antolatuz, merkatua zabalduz, EITBren, eskolen, liburudenden, liburutegien eta liburu-azoken bidez.

Ekintza
3. c. 01/1 - Udal liburutegiak era egokian hornitu, ezagutzera eman eta euskal materialen erabilera sustatzea bertan.
3. c. 01/002 - Herriko kultur eta hizkuntza ondarea jasotzen duten argitalpenak sustatzea.

Esparrua 3. g - Kulturgintza

Neurria 3. g. 002 - Helduei zuzendutako kultur jardueretan euskararen erabilera bultzatzea.

Ekintza
3. g. 002/003 - Euskal tradizioari lotutako ekintzak bultzatzea.
3. g. 002/001 - Tailerrak eta ikastaroak euskaraz antolatzea.
3. g. 002/002 - Hitzaldiak eta emanaldiak euskaraz antolatzea.

Neurria 3. g. 01 - Kulturgintza: Haurrei eta gazteei zuzendutako kultur ekoizpenak lehenetsi, euskara biziberritzeko duten garrantziagatik.

Ekintza
3. g. 01/001 - Gabonetako oporretan, haur eta gaztetxoaren artean, arrakasta duten kultur ekintzak antolatzea, esaterako: pailazoen ekitaldia.
3. g. 01/002 - Zinea euskaraz egitasmoa.
3. g. 01/003 - Haurrentzako antzerki emanaldiak.
3. g. 01/004 - Idazlan eta marrazki lehiaketa.
3. g. 01/005 - Elgoibarko Izarra elkarteak antolatutako idaz lehiaketak.
3. g. 01/007 - Eskolarteko antzerki erakusketa.

Neurria 3. g. 05 - Kulturgintza: Lan-baldintzak hobetzen, sortzaileen lanabesak egokitzen, beren lanaren oihartzuna ozentzen eta euskararen eta euskal kulturaren erabilera bultzatzen lagundu Kultura Sailak.

Ekintza
3. g. 05/2 - Euskarazko kultur plangintza diseinatzea, aldizkakotasuna bermatzeari begira.
3. g. 05/4 - Herrian dauden kultur talde desberdinak eta euren lana ezagutaraztea.
3. g. 05/5 - Herriko festetan eta kultur ekitaldi nagusietan euskararen presentzia bermatzea.
3. g. 05/6 - Udaleko azpiegiturak euskal kulturgintzan dabilen taldeen esku jartzea.
3. g. 05/7 - Euskal kultur produkzioa zabaltzea eta ezagutaraztea.
3. g. 05/3 - Herrian kultur taldeen antolakuntza bultzatzea.

Esparrua 3. h - Hedabideak

Neurria 3. b. 01 - Komunikabideen garrantzia gero eta handiagoa denez, euskarazko komunikabideak hizkuntza-normalizazioaren arlo estrategikotzat jo behar ditu administrazioak, baita euskarazko prentsak horretan zer paper jokatu behar duen erabaki ere, eta horren arabera laguntzak eskaini.

Ekintza
3. b. 01/001 - BARREN aldizkaria argitaratzea.
3. b. 01/2 - Komunikabideak euskarazko kultur, aisialdi eta kirol ekitaldien berriemaile eta partaide bihurtzea.